

Enara Azpitarte
Naia Mendia
Laura Solana
Eneko Munitxa
Miguel Lancao

PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

Gu Naia Mendia, Miguel Lancao, Laura Solana, Enara Azpitarte eta Eneko Munitxa gara eta gure enpresa propioa sortzea erabaki dugu. Haur Hezkuntzako Goi Mailako zikloko ikasketak jarduten ari gara, eta gure ikasketak eta ezagutzak familiei eta hurrei plazararatzeko asmoz sortu nahi dugu enpresa.

Gure enpresa MUNALAMIEN du izena, familiek eta hurrek disfrutatzeko aisialdirako esparru bat eskaintzen dugu, baita ere hainbat prestakuntza eskaintzen ditugu helduentzako. Beharrezkoa ikusi dugu horrelako zerbitzu bat eskaintzea jendartean konturatu baitgara familiek eta hurrek ez dutela askotan nahiko denbora elkarrekin pasatzen eta baita hurraren garapenari ez zaiola behar beste garrantzia ematen. Horregatik familiak eta hurrak elkarrekin egoteko aukera eskaintzen dugu eta baita familiek edota hurrak gustuko edo zer ikusia duten heldu orok prestakuntzak jasotzeko aukerak eskaintzen ditugu. Asteaz ekintza desberdinak egingo ditugu haurrentzako eta asteaz bi egunetan familietako kide bat ere etorri daiteke hurrarekin ekintzak jarduteko. Lehen aipatu bezala, helduentzako prestakuntzak ere eskainiko ditugu, hala nola, ikastaroak hurraren garapenaren inguruan, profesionalen hizketaldiak, jardunaldiak...

Haurtzaroa gizakion etaparik garrantzitsuena da, etapa honetan gure nortasuna eta izaera eraikitzen hasten baitgara, eta etapa honetan gertatzen zaizkigun egoera desberdinek etorkizunean zer nolako pertsonak izango garen kondizionatuko du eta eragina izango du. Beraz, beharrezkoa ikusten dugu jendarteak honen kontzientziaztea eta horretarako guk harrimintak eskainiko ditugu.